

OFIZIO ETA TITULUDUN ETXEEN OSAGARRIZ

"Ofizio eta titulu nortasuna Hondarribiko etxe izenetan" izenburuz argitaratu nuen lan bat *Hondarribia* aldizkarian, 1993. urteko uztaillean (48 zenbakidun alearen 14-15 orrialdeetan). Baina holako lanetan beti galditzen dira hutsuneak eta gaurko honetan zenbait ohar eskaini nahi nituzke lan haren osagarri.


Batxillerenea deritzanaz Floridablanca-ren zentsukoa soilik agertzen nuen etxearen lehen berria ematean. Orain zenbait gehigarri azaldu beharra dut.

Adibidez, Isastik 1625ean idatzi zuen *Compendio historial de Guipúzcoa* liburu haren 454. orrialdean, Batxiller ziren bost hondarribiarren izen-deiturak ematen ditu: Migel Olaberria, Pedro Zuloaga, Gabriel Abendaño, Juan Otxoa de Altxakoa eta Migel de la Borda (hau laborda brezala irakurtzekoa da). Azkenagatik bakarrik zioen nortzuren ondotik kargua hartu zuen eta aldi berean "que hoy vive" ezarriz. Horrek aditzera ematen digunez, nonbait besteak ordurako hilak ziren.

Horietakoren bategandik harrezakean baserri etxeak Batxillerenea izentzat. Garai haietan ez zen nornahi batxiller tituluduna.

Inor gehitzekotan, behar bada 1516. urtean hemen bertan bizi izan zen Batxiller Joan Martinez de Zaldibia tolosar historiagilea edo izan daiteke. Pertsonaia ospetsu hau *Suma de las cosas cantábricas y guipuzcoanas*-en egilea genuen. Liburua 1560ean Gipuzkoako Batzarrari eskaini zion, baina historiagile askok eskuartean izanarren — gure betidaniko kultura ahuleziagatik edo — ez zuen izan inprimatuta argitaratzeko zoririk Faustu Arozenak bere sarreraz eta oharrez 1944ean plazaratu arte.

Kaikuegi, etxe izentzat "Caicuegui de Arcoll" bezala dakar isasti berak aipatutako histori liburu horren 91. orrialdean. Etxe hau 1787an Floridablancaren eskariz egin zen zentso hartan dator. Nere artikuluan ez nuen sartu ofizio nortasunezkoetan, baina ez dut zalantzarik



kaikuegileengatik duela izen hori. Gainera, familia honen armarriak bost kaiku ahuspez jarriak ditu. Esan nahiaren eta ontzigilearen agergarri noski.

Pertsona deituretan, lehen lehena, Fermin Olaskoaga adiskideari zor diot, berak elizako lehen bataio liburitik jaso ahal izan dituenak lekuko, han agertzen zaizkigu, Gabriel Caycuegui 1565eko abenduaren 2an bataiatua, eta Juanes Otace Caicuegui 1585eko azaroaren 28an. Ondotik beste asko datoz.

Gipuzkoako gizon ospetsuen artean agertzen du Isastik, aipatutako liburu horren 334. orrialdean, "Doctor Martin Caicuegui y Arana, colegial y catedrático en Oñate. Natural de Fuenterrabia". Eta Fausto Arozenaren *Diccionario biográfico vasco*, vol I Guipúzcoa (1963) dakarrenez, 1623an Oñatiko Unibertsitatean Erretore omen zen.

Juan San Martin.